Sektore kritikoa klaustroan eraginkorra izango da

Atzoko klaustrorako hauteskundetako lehenengo datuen irakurketa egiten du LABek .
LAB eta STEILAS sindikatuok **hiru campusetan sustatu dituzte kandidaturak** IIP iraunkor ez doktore eta behin behineko IIP kolektiboetan. **Behin betiko ez-doktoreen** kolektiboan oraingoetan **11** klaustrokide lortuz, aurreko hauteskundeetan 8. Bestalde, **behin behineko IIP** (Bestelako IIP) kolektiboan, aurreko hauteskundeetan 4 klaustrokide lortu bagenituen, aurten **3**.
Irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen kolektiboan, **20 ikastetxetako** kandidaturak sustatu ditugu: **Bizkaian 9, Gipuzkoan 7 eta Araban 4**, 2011ean baino 3 gutxiago. Lortutako ordezkaritzari dagokionez, hauek **46 klaustrokide** lortu dituzte, aurreko hauteskundeetan baino 1 gutxiago.
Kolektibo guztiak kontuan hartuta sektore kritikoa klaustroan 59 klaustrokidetik 60ra pasatzen da.

- **Behin betiko doktoreen** kolektiboan, hautatutako klaustrokideetatik (123) sektore kritikoak **46** eskuratzen ditu.
- **Behin Betiko ez-doktoreen** kolektiboan, hautatuko klaustrokideetatik (16) sektore kritikoak **11** eskuratzen ditu.
- **Behin behineko IIP** (Gainerako IIP) kolektiboan, hautatutako klaustrokideetatik (5) sektore kritikoak **3** eskuratzen ditu.

Laburbilduz, hautatutako klaustrokideetatik Sektore Kritikoak %41,6 lortzen ditu.